



## **Andoaingo Udala 14 urte arteko neska- mutilen kalerako itzulera kontrolatua prestatzen ari da**

- **Zerbitzu Sailak garbiketa eta desinfekzioa indartu ditu ibilgarriak diren kale eta plaza nagusietan**
- **Haur-parkeak erabiltzea debekatuta dago, ezingo dira erabili abisu berririk eman arte**
- **Merkatua Goikoplazan berreskuratu da, gorabeherarik gabe eta segurtasun-neurriak betez**

Konfinamendua hasi zenetik, adingabeak ezin izan dira etxetik atera. Arduraz jokatu behar izan dute eta arauak zorrotz errespetatu dituzte. Baina neurri murriztaileak pixkanaka malgutuz joango dira, eta bihartik aurrera (apirilaren 26a, igandea) 14 urtera arteko haurrek, modu kontrolatuan, kalera itzuli ahal izango dute.

Hori dela eta, Zerbitzu Sailak udalerriko ibilgarriak diren kale eta plaza nagusien garbiketa eta desinfekzioa indartu ditu, igandetik aurrera txikienek erabili ahal izango dituztela ulertuta.

Kalea pixkanaka berreskuratzen ari den arren, azpimarratzen da haur-parkeen erabilera debekatuta dagoela, itxita egongo dira abisu berririk eman arte. Gogoan izan haur bakoitzak bere jostailuak (patineteak edo bizikletak barne) etxetik atera ahal izango dituela, baino ez dela onartuko gainerakoekin elkarrekintzarik izatea.

Azkenik, adingabeei lagunduko dieten helduei seriotasunez eta erantzukizunez jokatzeko deia egiten zaie, baimendutako denbora eta gehieneko distantzia bete dezaten (1 ordu eta 1 km).

### **Merkatua berreskuratu da Goikoplazan**

Gaur, merkatua berrezarri da Goikoplazan, partzialki (elikagaiak eta edariak saltzea baimenduz) eta segurtasun-neurri handiekin, goizeko 9:00etatik eguerdiko 13:00etara. Mari Jose Izagirre zinegotziaren arabera, "ez da gorabehera aipagarriarik izan", eta "saltzaileek eta bezeroek segurtasun neurri guztiak betez erakutsi duten zuhurtzia eta zorrotasuna" azpimarratu ditu. Gogoan izan azoka astean behin egingo dela, larunbatetan eta Goikoplazan, Makaldegiko ohiko kokapenean egin beharrean.

**Andoain, 2020ko apirilak 25**



Andoaingo Udala



## **El Ayuntamiento de Andoain prepara la vuelta controlada a la calle de niñas y niños de hasta 14 años**

- **El departamento de servicios ha reforzado la limpieza y desinfección en las principales calles y plazas que pueden ser transitadas**
- **Se recuerda que los parques infantiles no van a poder utilizarse y que permanecerán cerrados hasta nuevo aviso**
- **El mercado se recupera en Goikoplaza sin incidentes y cumpliendo las medidas de seguridad**

Desde el comienzo del confinamiento, los menores no han podido salir de sus hogares. Han tenido que actuar de forma responsable y han respetado las normas de forma rigurosa. Pero las medidas restrictivas van a ir flexibilizándose progresivamente y a partir de mañana, domingo 26 de abril, las niñas y los niños de hasta 14 años podrán realizar una vuelta a la calle controlada.

Es por ello que desde el Departamento de Servicios se ha reforzado la limpieza y desinfección de las principales calles y plazas del municipio, entendiéndose que podrán ser transitadas por los más pequeños a partir del domingo.

Pese a la recuperación progresiva de la calle, se insiste en que los parques infantiles no van a poder utilizarse y que permanecerán cerrados hasta nuevo aviso. Se recuerda que solo se permitirá que cada niña o niño pueda sacar desde casa sus juguetes (patinetes o bicicletas incluidos), pero nunca para interactuar con el resto.

Por último, se hace un llamamiento a las personas adultas que acompañarán a los menores a que actúen con seriedad y responsabilidad, cumpliendo el tiempo y la distancia máxima permitida (1 hora y 1 km).

### **Se recupera el mercado en Goikoplaza**

Hoy se restablecía el mercado en Goikoplaza, de forma parcial (permitiendo la venta de alimentos y bebidas) y con importantes medidas de seguridad, en horario de 9:00 de la mañana hasta las 13:00 del mediodía. Según la concejala Mari Jose Izagirre, "no ha habido incidencias", y ha destacado "la prudencia y rigor con el que han actuado tanto las personas vendedoras y clientes, cumpliendo con la totalidad de medidas de seguridad". Se recuerda que el mercado se celebrará un día a la semana, los sábados y en Goikoplaza, en vez de su lugar habitual en el Choperal.

**Andoain, 25 de abril de 2020**